BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3094

EBAZPENA, 2012ko maiatzaren 17koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Juana Zabala Mendizabal andreak Adunan sustatutako Bulandegi harrobia aldatzeko proiektua ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozeduratik kanpo uztea erabakitzen duena.

Ingurumeneko sailburuordearen 1996ko irailaren 30eko Ebazpenaren bidez, Adunako Bulandegi harrobiaren ustiapen-proiektuari buruzko ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin zen.

2012ko urtarrilaren 17an, Eusko Jaurlaritzako Energia eta Meategien Zuzendaritzak Ingurumeneko Sailburuordetzari Adunako Bulandegi harrobiaren ustiapen-proiektua aldatzeko eta berroneratzeko ingurumen-agiria igorri zion, ingurumen-organoak ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedura abiarazteko beharrari buruzko erabakia har zezan. Ingurumen-organoak eskatuta, ingurumen-agiria osatu eta berriro igorri zitzaion, 2012ko otsailaren 29an.

Agirian zehazten denez, 1996ko irailaren 30eko ebazpenak helburu izan zuen proiektuan aldaketa jakin batzuk egin nahi dira. Batetik, ofita-muinoa ustiatu nahi da, ingurumen-inpaktuaren adierazpenean agertzen den kotatik (91 m.i.m.g., gutxi gorabehera) proiektuaren ingurumen-agirian jasotako kotaraino (60 m.i.m.g.). Bestetik, Miraballeseko meategi-eremuan 110 m.i.m.g.-rainoko lur- eta harri-betelana egitea aurreikusi da. Ildo horretan, ingurumen-inpaktuaren adierazpenean, betelanetarako bi plataforma jaso dira, bata 83,50 m-ko kotan eta bestea 80 m-ko kotan.

2012ko martxoaren 14an, ingurumen-organoak zabaltze-proiektuaren aldaketak eragiten dien administrazio eta erakundeei berariaz galdetu zien aipatutako jarduketen ingurumen-eragina ebaluatzeko prozedurari ekiteko beharraz, eta, hala balegokio, ingurumen-eraginaren azterketak izan beharreko edukiez eta gutxieneko irismenaz, Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 17.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Halaber, honako hauei ere galdetu zitzaien: Adunako Udalari; Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetza Zuzendaritzari, Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzari, Kultura Ondarearen Zuzendaritzari eta Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritzari; Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiari, Mendi eta Ingurune Naturalaren Zuzendaritza Nagusiari eta Kultura Zuzendaritza Nagusiari; URA Uraren Ur agentziari; IHOBE Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoari.

Adunako Udalak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritzak, Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetza Zuzendaritzak eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak eta Mendi eta Ingurune Naturalaren Zuzendaritza Nagusiak erantzunak helarazi zituzten.

Adunako Udalak jakinarazi duenez, ez du aurreikusten ingurumen-eragin negatibo garrantzitsurik eta, beraz, ingurumen-inpaktuari buruzko beste ebaluazio bat egitea ez zaio beharrezkoa iruditzen.

Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritzak jakinarazi du bere ustez izapidetutako agiriak ez duela ematen nahikoa informazio aireko partikulek eta zaratak ingurumenean izan ditzaketen eraginak balioesteko, ez eta eragin horiek murrizteko aurreikus daitezkeen neurri

zuzentzaileak ezartzeko. Ez du inolako iritzirik eman, ordea, ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedura egiteko beharraren inguruan.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du bere Sailean ez dela agertzen lanen eraginpean egon litekeen inolako kultura-elementu interesgarririk. Halere, gogorarazi du Kultura Ondarearen katalogoak berrikusten ari direla eta azterketa horretan antzeman ez eta etorkizunean azaleratu litezkeen elementuak ere egon daitezkeela.

Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetza Zuzendaritzak adierazi duenez, proiektuak ez du inolako eraginik babestutako eremuetan, natura-intereseko eremuetan, pasabide ekologikoetan edo paisaiaren ikuspuntutik interesa duten eremuetan. Era berean, ez die kalte nabarmenik eragiten babestutako landare edo animaliei edo euren habitatei. Dena dela, Zuzendaritza horrek jakinarazi du lanek baso mistoa duen eremu natural zabal batean dutela eragina, eta proiektuaren eraginpean dagoen eremu osoa harizti/baso misto izaerara leheneratzea proposatu du.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi duenez, ondare historiko/artistikoari eta ondare arkeologikoari dagokionez, ez dago inolako aztarnategirik proiektuaren eraginpeko eremuan, eta eremu hori ez da aproposa halako aztarnategiak egoteko. Beraz, ez du beharrezkotzat jo proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitea.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendi eta Ingurune Naturalaren Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi duenez, proiektuari lotutako eremua landare-espezie inbaditzailez beteta dago gaur egun, eta horien artean Buddleja davadii nabarmentzen da. Lur-mugimenduek espezie horiek ugaltzen laguntzen dutenez, espezieak erauzteko edo gehiago ez hedatzeko neurriak ezartzea nahitaezkoa iruditzen zaio.

Proiektuak ingurumenean izan dezakeen eragina neurtzeko, eskura dagoen informazioa aztertu da. Azterketa hori egiteko, Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren III. eranskineko irizpideei heldu zaie. Azterketaren emaitza honako hau izan da:

Proiektuaren ezaugarriak.

Aurretiaz azaldu denez, proiektuaren aldaketaren xedea zera da: Bulandegi ofita-harrobia ustiatzen jarraitzea, baina gaur egungo harrobia 91 m-ko kotatik 60 m-ko kotara jaitsaraziz. Ildo beretik, Miraballeseko meategi-eremuan lurrezko eta harrizko betelana egin nahi da 110 m-ko kotaraino. Ingurumen-inpaktuaren adierazpenean, betelanetarako bi plataforma ezartzea aurreikusten da: bata 83,50 m-ko kotaraino, eta bestea 80 m-ko kotaraino.

Erauzketa-jarduera luzatzearen ondorioz, aprobetxatutako material kantitatea areagotu egingo da: 738.000 m^3 gehiago, hain zuzen. Hazkunde hori gaur egungo harrobiaren kota sakontzearen ondorioz etorriko da, baina ez da ustiategiaren azalera hedatuko. 1996ko irailaren 30eko ingurumen-inpaktuaren adierazpenean, 186.000 m^3 mea erauztea aurreikusi zen, baina azpimarratzekoa da ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin zenean meategia abian zegoela, eta 1996ko ingurumen-inpaktuaren azterketak ez zuela kuantifikatu aurreko urteetan erauzitako ofita bolumena. Proiektuaren hasierako agiriaren arabera, ustiatze-erritmoa urteko 200.000 m^3 baino txikiagoa izango da.

Azaleraren hedadurari dagokionez, erauzketa-jarduera 3 bat hektareatan egingo da, hau da, hasierako ustiategiaren eremu berean. Beraz, ez da hartuko azalera berririk.

Proiektua ez da iristen Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuan meategi-ustiategien ingurumen-inpaktuaren aitorpena egiteko ezarritako mugara, ez kopuruan (200.000 m^3/urtean), ez eragindako azaleran (25 hektarea).

Aurrekoa ikusirik, eta Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren erauzketa-jardueren batez besteko azalera eta produkzio-gaitasuna kontuan hartuta, eskaturiko jarduketak hedadura txikikoak direla esan daiteke.

Bestalde, arrokak erauzteko sistema mekanikoa izango da, hasierako proiektuan aurreikusitakoaren antzekoa, lehergailuak erabiltzeko aukera baztertu egin delako. Ildo beretik, hasierako proiektuan bezala, ez da ezarriko arrokak tratatzeko instalaziorik: xehamakinarik, errotarik, baherik...

Miraballeseko meategi-eremuan egin beharreko betelanari dagokionez, 975.000 m^3 hartzeko gaitasuna balioetsi zaio, eta betetzeko erabiliko diren materialak, berriz, lur-erauzketen bidez lortutako lurrak, arrokak eta agregatuak izango dira. Gai horri dagokionez, aipatzekoa da Estatuko eta Erkidegoko legeriaren arabera, lurrez eta haitzez egindako betelanentzat berez ez dagoela zertan egin ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedurarik.

Agregatu ofitikoa erauzteko prozesuetan eta indusketen bidez lortutako lurrez eta haitzez osatutako betelanetan ez da egoten substantzia arriskutsurik eta, ondorioz, ez da aurreikusten inolako prozesu kutsatzaile garrantzitsurik. Ildo beretik, ez da aurreikusten hondakin, isuri edo emisio nabarmenik edota, hasierako proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatu zenean kontuan hartu zirenez gain, bestelako hondakin, isuri edo emisio nabarmenik.

Aurreko guztia ikusirik, proposaturiko hedapena ezin da jo proiektu handitzat, ez tamainan, ez ingurumenean izan dezakeen inpaktuan.

Proiektuaren kokapena.

Aurreikusitako jarduketak hasierako proiektuaren eremu berean egingo dira (hau da, 1996ko irailaren 30eko ingurumen-inpaktuaren adierazpenean jasotako eremuan). Aldaketa txiki batzuk daude, betelanerako egituraren diseinua doitu egin delako, baina jarduketei lotutako okupazio osoarekin orekatzen dira. Beraz, oro har, aurkezturiko aldaketak ez du eskatzen lur-azalera handiagoa hartzea, ez eta aurretiaz zuten erabilera aldatzea ere.

Proiektuak ez du eraginik babestutako eremuetan, ezta natura-interes handiko eremuetan ere. Aitzitik, eremuko ingurumen-balio murriztu egin da, azken hamarkadetan bertan gauzatutako industria-jardueren ondorioz.

Azpimarratzekoa da Miraballeseko meategi-eremuaren gainazalean baso mistoa dagoela, eta interes erlatiboa duela, eraldatutako ingurune batean dagoelako. Dena dela, hasierako proiektuan ere basoaren iraupena ez zegoen oso argi, betelanetarako bi plataforma ezartzeko aukera aurreikusi baitzen. Azkenean bi plataformak ez egin arren, onartutako proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioan basoa galtzeko aukera aipatu zen. Beraz, planteatutako aldaketak ez dakar inolako berrikuntzarik elementu horri lotutako eraginari dagokionez. Nolanahi ere, ebazpen honen baldintzetan Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetza Zuzendaritzaren txostena jasotzen da, eta eremu hori harizti/baso misto gisa leheneratzeko premia adierazten da bertan.

Proiektuaren eraginpeko partzela batzuk, bestalde, Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioari buruzko irailaren 30eko 165/2008

Dekretuan azaltzen dira. Ondorioz, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legeak, otsailaren 4koak, xedatutakoa bete beharko da.

Proiektuak izan dezakeen eraginaren ezaugarriak.

Proiektua gauzatzen den bitartean ingurumen-inpaktuak eragingo ditu, halako jarduerei dagozkien ekintzen ondorioz. Besteak beste, aldaketa geomorfologikoak, hauts-isuriak, zarata eta esekidurazko solidoz betetako ur-isuriak.

Ez da erauzketa-jarduerari loturiko bestelako ingurumen-eraginik aurreikusten (bibrazioak, adibidez), erauzte-lanak egiteko metodoa erraza delako (ez da leherketarik egingo).

Miravalles meategi-inguruan aurreikusitako betelanetarako, baso mistoak osaturiko landare-estaldura kendu egin behar da.

Era berean, harrobiaren eta betelanetarako egituraren geometriaren ondorioz, paisaia aldatu egingo da.

Herritarrei eragindako inpaktuei dagokienez (kamioiak iragatean sortutako zarata eta partikulak...), esan behar da N-1 errepidetik proiektuaren eremurako sarbidea dagoela, eta ez dituela etxebizitza-eremuak zeharkatzen.

Nolanahi ere, ingurumen-inpaktu horiek onarturiko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioan aintzat hartutako berdinak izango dira, tipologiaren eta magnitudearen aldetik.

Aurreko guztia aztertu ondoren, bistakoa da proiektuaren hedadura eta balizko eraginak ez direla bereziki handiak, eta barne hartuko duen eremuan ere ez dagoela aparteko elementu kalteberarik. Ondorioz, ingurumen-inpaktuak munta txikikoak izango dira.

Proiektuaren ezaugarriak ikusita, eta Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen urtarrilaren 11ko 1/2008 Errege Lege Dekretuaren III. eranskinean zehaztutako irizpideak eta kontsulta-izapidetzan jasotako erantzunak kontuan hartuta, Bulandegi harrobiko erauzte-lanak aldatzeko proiektuak ingurumenean ez du izango eragin kaltegarri nabarmenik, betiere ebazpen honetan adierazitako neurri babesleak eta zuzentzaileak betetzen badira.

Kontuan hartuta organo honek ebazpen hau emateko eskumena duela, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua aztertu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Adunan, Juana Zabala Mendizabal andreak sustatutako Bulandegi harrobiaren aldaketa-proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorik ez egitea, eta proiektua burutzeko, sustatzaileak honako neurri hauek hartu behar izatea:

● Ebazpen honek agindutako babes-neurriak eta neurri zuzentzaileak ezarri beharko dira. Orain agindutako neurriek osatu egiten dituzte Ingurumeneko sailburuordearen 1996ko irailaren 30ean Ebazpenean, Adunako Bulandegi Harrobia ustiatzeko proiektuaren ingurumen-

inpaktuaren adierazpena erabaki zuenean, ezarritako neurriak, bai eta sustatzaileak Bulandegi harrobia ustiatzeko eta leheneratzeko Eusko Jaurlaritzako Energia eta Meategi Zuzendaritzaren ingurumen-organoari 2012ko otsailaren 29an igorritako aldaketa-proiektuaren ingurumen-agirian proposatutakoak neurriak ere.

● Hondakinak hondakindegietan uztea eta betelanak egitea arautzen dituen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua betez, Miravalles meategi-inguruan betelanak egiteko, aurretiaz organo eskudunaren baimena beharko da.

● Kontuan hartuta proiektuak lurzorua kutsa dezaketen jarduerak burutu diren lursailetan izango duela eragina, halako eremuetan edozein jarduketa egiteko, aurretiaz lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeak aurreikusten duen ingurumen-organoaren baimena beharko du.

● Zaratari buruzko azaroaren 17ko 17/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuko 22.. artikuluan xedatutakoaren arabera, zonifikazio akustikoari, kalitate-helburuei eta isurpen akustikoei dagokienez, erabilitako makinek kanpoaldean erabilitako makinen soinu-emisioei buruzko indarreko legedian ezarritako xedapenak bete beharko dituzte eta, bereziki, haientzat aplikagarria denean, kanpoaldean erabiltzen diren makina jakin batzuek ingurumenean eragiten dituzten soinu-emisioak arautzen dituen otsailaren 22ko 22/2002 Errege Dekretuan eta arau osagarrietan xedatutakoa.

● Jarduerak irauten duen bitartean sortutako hondakinak, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 28/2011 Legean eta arautegi zehatzetan aurreikusitakoa betez kudeatuko dira.

Erauzketa-industrien hondakinak kudeatzeari eta meategietako jarduerak eragindako tokiak babestu eta leheneratzeari buruzko ekainaren 12ko 975/2009 Errege Dekretuak agintzen duenaren arabera kudeatuko dira meategiko hondakinak.

Hondakinen balorizazioa teknikoki eta ekonomikoki bideragarria bada, baimendutako balorizazio-prozesu batera bidali beharko dira hondakin guztiak.

Hondakin horien balorizazioa teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela behar bezala ziurtatu ondoren soilik deuseztatu ahal izango dira hondakinak.

Hondakindegira bidali beharreko hondakinak kudeatzeko, hondakinak hondakindegieta utzita deuseztatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuari eta hondakinak hondakindegietan utzita deuseztatzea eta betelanak egitea arautzen dituen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuari jarraituko zaie. Hondakin horiek karakterizatu egin beharko dira, 2001eko otsailaren 19an Kontseiluak hartutako 2003/33/EE Erabakiaren arabera; erabaki horrek hondakinak hondakindegian onartzeko irizpide eta prozedurak ezartzen ditu, 1999/31/EEE Zuzentarauaren 16. artikuluari eta II. eranskinari jarraiki.

Olio erabilia kudeatzeko, honakoak hartuko dira kontuan: industriako olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua eta olio erabiliaren kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoan arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretua.

Baimendutako kudeatzaile bati eman arte, olio erabilia andel iragazgaitzetan bilduko da, estalitako biltegi batean. Andel horiek etiketa zuzenak izan eta zola iragazgaitzen gainean egon beharko dute, edozein ihesi edo isuriri aurre egiteko prestatuta.

● Miravalles meategi-inguruko erauzte-lanen eta betelanen ondorioz, proiektuak eragindako eremu osoa barne hartuko duen leheneratze-proiektu bat prestatu beharko da. Eremua harizti/

baso misto bihurtze aldera bideratu beharko da leheneratze hori. Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak izapide honetan emandako txostenaren arabera, sasi-espezieak (iparraldeko elorri zuria, etab.) landatzeko ez dira haziak erabiliko eta bai, ordea, 2 izerditako landareak, lurraren egonkortasuna ziurtatzeaz gain, landare-estaldura trinkoa osatzeko helburuz.

Leheneratzeko lanak egiten diren bitartean, landare inbaditzaileak ugaltzea galarazteko ekintzak gauzatuko dira. Alde horretatik, landare-estalkia lehengoratzeko erabilitako lurren jatorria kontrolatu beharko da, espezie horiekin kutsatutako lurrak ez erabiltzeko.

2.– Ebazpen honen edukia Eusko Jaurlaritzako Energia eta Meategien Zuzendaritzari, proiektuaren sustatzaileari eta Astigarragako Udalari jakinaraztea.

3.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

4.– Ebazpen honek ez du bide administratiboa agortzen, eta gorako errekurtsoa jarri ahal izango da Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 114. eta hurrengo artikuluek ezartzen dutenari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 17a.

Ingurumeneko sailburuordea,
M.ª ARANZAZU LETURIONDO ARANZAMENDI.